Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundean integratzeko laguntzen banaketa arautu zuen. Agindu hori aldatu zuen 2000ko abuztuaren 7ko Agindua ere indargabetuta geratu da.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko uztailaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSE IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SAENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

**Zk-4790**

AGINDUA, 2003ko uztailaren 16koa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena; beraren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko behi-aziendaren identifikazioa eta abereen osasunerako kanpainak arautu dituen agindua aldatzen da.

1984ko abenduaren 17ko Aginduaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko behi-aziendaren identifikazioa eta abereen osasunerako kanpainak arautu ziren. Agindu hartako 24. artikuluan idiek idi-probetan edo antzeko demetan parte hartzeko bete beharreko betekizunak ezarri ziren.

Artikulu hori 1993ko martxoaren 11ko Agindu batek aldatu zuen, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko idi-probetan aritzen diren idiak identifikatzeko sistemak eta haiek bete beharreko osasun-baldintzak arautu dituen aginduak. Aldaketa haren bidez idien identifikazio-teknikak hobetu ziren, osasuna eta lehiakortasuna errazago kontrolatzeko. Hala ere, gaur egun betekizun berriak eskatu behar dira abere horien identifikazioan.

Horrez gainera, agindu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko kultur eta kirol ekintzetan parte hartzen duten abereekin drogak erabiltzen diren kontrolatzeari buruzko (antidopin kontrola) urtarrilaren 22ko 6/1997 Dekretuko 4.a) eta 5 artikuluetan xedatutakoa garatu da. Dekretu hori animaliak babesten dituen urriaren 29ko 6/1993 Legearen ondorioz sortu zen; izan ere, lege hark animaliei alkohola, drogak edo kalte fisiko zein psikikoak egin ahal dizkieten botikak ema-

Social Voluntaria de la Patata denominada «Fondo de compensación para la Patata de Álava», así como la Orden de 7 de agosto de 2000 que la modifica.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

**N°-4790**

ORDEN de 16 de julio de 2003, del Consejero de Agricultura y Pesca, de modificación de la Orden por la que se regula la identificación del censo bovino de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la realización de Campañas de Saneamiento Ganadero.

La Orden de 17 de diciembre de 1984, por la que se regula la identificación del censo bovino de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la realización de Campañas de Saneamiento Ganadero, recoge en su artículo 24 los requisitos necesarios para la participación de los bueyes en pruebas de deporte rural vasco (idiprobak) o en concursos similares.

El citado artículo fue modificado por una Orden posterior de 11 de marzo de 1993, por la que se regulan los sistemas de identificación y condicionantes sanitarios de los animales participantes en pruebas deportivas de bueyes/idiprobak en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que perfeccionó las técnicas de identificación existentes para su control sanitario y competitivo. Sin embargo, hoy en día se ha visto la necesidad de introducir nuevas exigencias en la identificación de estos animales.

Asimismo esta Orden viene a desarrollar lo dispuesto en los artículos 4.a) y 5 del Decreto 6/1997, de 22 de enero, de control del uso de drogas (control « antidoping «) en animales que intervengan en actos culturales y deportivos en la Comunidad Autónoma del País Vasco. El mencionado Decreto tuvo a su vez origen en la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, la cual prohibe suministrar a los animales alcohol, drogas o fármacos o practicarles cualquier mani-

tea debekatu zuen, bai eta halako kalteak sor ditzaketen manipulazio artifizialak ere, nahiz eta horiek guztiak lehiakortasuna hobetzeko izan.

Aurrean aipatutako identifikazio-sistemak hobetzeko eta idi-probetarako betekizun zorrotzagoak ezartzeko asmoarekin (helburua idien ongizatea eta osasuna zaintzea dela), ezinbestekotzat jo da baldintza berriak ezartzea idi-probetan aritzen diren abereak identifikazio-sistemetan eta haien osasunari dagokionez, bai eta probetan aritzeko ere.

Hori dela bide, hauxe

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Euskal Autonomia Erkidegoko behi-aziendaren identifikazioa eta abereen osasunerako kanpainak arautu dituen Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1984ko abenduaren 17ko Aginduko 24. artikulua honela geratu da:

«24. artikulua.– 1.– Idi-probetan eta antzeko demetan aritzen den behi-aziendak betekizun hauek bete behar ditu:

a) Banako identifikazioa eduki behar dute: marka bikoitza belarrian eta «transponder» izeneko elementu mikroelektronikoa buztanaren hasieran, ezkerraldean.

Bi identifikazio-sistema horiek uneoro egon behar dira lurralde historikoetako abeltzaintzazerbitzuen zaintzapean eta kontrolpean.

Transponderrak ISO 11784/11785 arauak bete behar ditu eta homologatuta egon behar da.

b) Indarrean dauden osasun-agiriak; haietan aberearen identifikazio-zenbakiak agertu behar dira, bai belarrietakoena bai transponderrarena.

c) Abere bakoitzak bere Behi Aziendaren Identifikazio Agiria eduki behar du.

d) Indarrean dagoen osasun-arautegia bete behar da.

e) Idi-proba edo antzeko dema egin aurreko sei hiletan antidopin kontroletan positiborik eman gabe egon behar da aberea, eta haren jabea abereari kontrola egiteari uko egin gabe, prozeduraren ondorioz ezarritako zehapenak preskribitu edo espedientea largetsi ezean.

pulación artificial que pueda producirles daños físicos o psíquicos, aun cuando sea para aumentar el rendimiento en una competición.

En orden a mejorar los sistemas de identificación anteriormente citados y establecer unos más severos requisitos en la celebración de las pruebas de deporte rural vasco y así salvaguardar el bienestar y la integridad de los animales participantes, se considera necesaria la introducción de nuevos requerimientos tanto en los sistemas de identificación, condicionantes sanitarios y exigencias de participación de aquellos animales que tomen parte en las referidas pruebas.

En su virtud,

DISPONGO:

***Artículo único.***– El artículo 24 de la Orden de 17 de diciembre de 1984, del Departamento de Agricultura y Pesca, por la que se regula la identificación del censo bovino de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la realización de Campañas de Saneamiento Ganadero, queda redactado como sigue:

«Artículo 24.– 1.– Para la participación en pruebas de bueyes o concursos similares los animales de la especie bovina deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Identificación individual mediante el uso de una doble marca auricular y de un elemento microelectrónico denominado « transponder », implantado en la parte lateral izquierda de la base de la cola del animal.

Ambos sistemas de identificación deberán de ser aplicados y sometidos, en todo momento, a vigilancia y control oficial por parte de los correspondientes Servicios de Ganadería de cada uno de los respectivos Territorios Históricos.

El transponder utilizado deberá cumplir las normas ISO 11784/11785 y estar homologado.

b) Documentación sanitaria en vigor, en la que consten los números de identificación animal correspondientes, tanto a los crotales orejeros como al transponder utilizado en cada uno de los animales participantes.

c) Ir acompañado del Documento de Identificación Bovino.

d) Cumplimiento de la normativa sanitaria vigente.

e) No haber dado resultado positivo, o haberse negado a someterse a controles antidoping, en los seis últimos meses anteriores a la celebración de la prueba de arrastre de bueyes o concurso similar, salvo si las sanciones impuestas como consecuencia de dicho procedimiento hubieran prescrito o se hubiera procedido a sobreseer el expediente.

f) Aberearen ustiategia ezin da egon ez debekupean ez murrizpenen bati lotuta aberearen identifikazioa, osasuna edo ongizatea dela eta, eta ezin du arrazoi horietako baten ziozko zehapen-espedienterik eduki irekita bere aurka, prozeduraren ondorioz ezarritako zehapenak preskribitu edo espedientea largetsi ezean.

2.– Erakunde antolatzaileek ondoko datuak jakinarazi behar dizkiote abeltzaintza-zerbitzu egokiari proba edo dema egin baino hamar egun lehenago, gutxienez:

a) Proba non, zein egunetan eta zein ordutan izango den.

b) Abereak zein egunetan, zein ordutan eta non pisatuko diren.

c) Proben programa eta egutegia.

d) Parte hartuko duten abereen jabeen zerrenda; parte hartuko duen abere bakoitzaren identifikazio-zenbakiak adierazi behar dira.

3.– Dagokion Abeltzaintza-zerbitzuak emango du proba egiteko baimena eta parte hartzen duten abereen osasuna kontrolatuko duten albaitari ofiziala izendatuko du.»

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau herri-kiroletako probetan eta antzeko demetan aritzen diren ekido guztiei aplikatuko zaie, identifikazioaz eta osasunaz ezarritakoa izan ezik, horretan berariazko arautegia izango baita aginduzko.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko uztailaren 16a.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SAENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

f) Que la explotación de permanencia del animal no esté sujeta a ninguna prohibición o restricción por razones de identificación, sanitarias o de bienestar animal, o que no tenga iniciado ningún expediente sancionador en materia de identificación, sanidad o bienestar animal, en tanto en cuanto el mismo no haya sido sobreseido o haya prescrito.

2.– Las Entidades organizadoras comunicarán al Servicio de Ganadería correspondiente, con al menos diez días hábiles de antelación los siguientes datos:

a) El lugar, fecha y horario de celebración de la prueba.

b) Indicación de las fechas, horarios y lugar de pesaje de los animales.

c) Programa y calendarios de participación de las pruebas.

d) Relación de propietarios o poseedores participantes, con indicación del número de identificación correspondiente a cada animal que intervenga en la prueba.

3.– El Servicio de Ganadería correspondiente autorizará la prueba y designará al veterinario oficial, encargado del control sanitario de los animales participantes.»

DISPOSICION ADICIONAL

La presente Orden será de aplicación a todos los équidos que participen en pruebas de deporte rural vasco y concursos similares, a excepción de lo referido a los aspectos de identificación y saneamiento animal que se seguirán regulando por su propia normativa.

DISPOSICION FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de julio de 2003.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.